


J. M^a Arizmendiarrietaren gogoetak



Errealistak eta pragmatikoak izateak ez dakar idealei uko egitea; baina idealak ez dira kimera eta amets ederrekin nahastu behar, gauzatu beharreko helburu izan behar dute eta. 429

Men egin behar diogu uneko errealitateari, nahiz eta gure indar guztiekin tematuko garen errealitate hori aldatzen, eta horretarako gordeko eta erabiliko ditugu gure indar eta baliabide guztiak. 401

Ideala, egin daitekeen ongia egitea da, eta ez amesten dena. 406

Triunfalismo gutxiago eta errealismo gehiago; berriketa gutxiago eta egintza gehiago; profeta gutxiago eta hitzeko pertsona gehiago; ameslari gutxiago eta pertsona praktiko gehiago. Ideia onak dira obra bihurtzen direnak eta hitz onak dira nork bere egintzekin bermatzen dituenak. 393

Esperientzia hau gizakiarengan eta gizakiaren gaitasunean konfiantza jartzen duen espiritu berri batekin lotuta dago. Kasu honetan, biziberritu egiten dira askatasunaren, duintasunaren eta justiziaren zentzua, zeinak ezelako dudarik gabe egiaztaturik baitaude gure lurreko gizakien idiosinkrasiaren adierazle diren erakunde tradizional eta demokratikoetan.

Gure ezaugarrietako bat zentzu praktikoa izan da, aukeren alorrean jokatzeko jakitea, idealez arduratuta eta idealoi uko egin gabe. Denon onerako, aukerak biltzen eta ez alperrik galtzen jakin dugu. Elkartzeko prozesuak ez dira bideragarriak neurritasun barik, batzuek eta besteek onartu behar dituzte eta, normalean, denek sakrifikatu behar dute beren posiziotik zerbait. Erradikalizazioek hautsi egiten dituzte gure herriaren kualitatetik konstanteenak eta herritarren giza nahiz gizarte bertuteak.

Horixe da baieztatzen eta desiratzen duguna, kontuan izanik herri honen espirituren berezitasunak zeintzuk diren: ekintzara jotzea espekulaziora bainoago; aurrera egitera, menperatzera bainoago; askatasuna, foruak eta lanean nahiz lanaren alde nork bere burua forma askotan gauzatzeko bizi espazioa maitatuz eta arretaz zainduz, denon mesedetan. 546